


Euskal AEko industria-jarduera % 1,3 jaitsi da 2025eko apirilean

2025eko martxoaren aldean, industria-produkzioa % 0,1 jaitsi da

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko baldintza homogeneousan, Euskal AEko industria-produkzioa aurreko urteko hil berean baino % 1,3 txikiagoa izan da 2025eko apirilean.

Aurreko hilaren aldean, Euskal AEko industria-jarduerak % 0,1 egin du behera azken hilabete honetan, urtaroen ondorioak zuzendu ondoren.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, Kontsumo-ondasunen ekoizpenak urte arteko portaera positiboa izan du 2025eko apirilean eta produkzioa % 4,1 hazi da sektore osoan. Igoera hori, batez ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* joerak eragin du, horien produkzioa % 5,1 igo baita; *Kontsumo-ondasun iraunkorren* produkzioa, berriz, % 0,1 bakarrik hazi da. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* artean altzarien eta etxeke tresnen fabrikazioa sartzen da, besteak beste. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* artean, berriz, honako hauek daude: elikagaiak prozesatzeko eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketarako eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmazia-produktuak eta jantziak egitea.

Ekipo-ondasunen ekoizpena (ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialen eraikuntza eta aeronautika edo ontzigintza) % 3,8 jaitsi da aurreko urteko apirilaren aldean.

Bitarteko ondasunetan, metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa barne, ekoizpena % 1,2 jaitsi da urte artean.

Energiaren ekoizpena, azkenik, % 7,6 murriztu da 2025eko apirilean, aurreko urteko hil beraren aldean. Sektore horretan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren fintzea.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Apirila 2025

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
Indize orokorra			
Euskal AE	-1,3	-1,0	-0,1
Araba/Álava	-3,9	-3,4	0,4
Bizkaia	-0,7	-0,9	-0,1
Gipuzkoa	-0,6	0,2	-0,4
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	4,1	2,1	-1,0
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	0,1	-4,5	-6,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	5,1	3,8	0,3
Ekipo-ondasunak	-3,8	-0,1	-1,0
Bitarteko ondasunak	-1,2	-2,9	2,0
Energia	-7,6	-4,1	-7,0

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hileraren arteko metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2025eko Ekainaren 3a

Iturria: Eustat, Industria-produkzioaren indizea

2025eko apirilean, Industria-produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiru lurralde historikoetan. Gipuzkoan % 0,6 jaitsi da ekoizpena, Bizkaian % 0,7 eta Araban % 3,9.

Maila bereiziagoan, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2025eko apirilean, urte artean, honako hauek izan dute ekoizpenean igoerarik handiena: *Materiala eta tresna elektrikoak* (% 9,9) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 3,1). Aitzitik, ekoizpenaren urte arteko jaitsiera nabarmenenak *Makineria eta tresneria* (% 3,9) eta *Metalurgia eta produktu metalikoetan* (% 3,4) izan dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Apirila 2025

	m / m-12
Elkikadura ind., edariak, tabakoa	2.8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	1.3
Kautxua eta plastikoak	-0.3
Metalurgia eta produktu metalikoak	-3.4
Materiala eta tresna elektrikoak	9.9
Makineria eta tresneria	-3.9
Garraio-materiala	0.9
Energia elektrikoak, gasa eta lurruna	3.1

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2025eko Ekainaren 3a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2025EKO APIRILEKO BALANTZE METATUA

Urteko lehenengo lau hilabeteetako metatua, Industria-produkzioaren Indizea % 1,0 jaitsi da. Apirilera arteko ekoizpen metatua % 2,1 igo da *Kontsumo-ondasunetan*. *Ekipo-ondasunek*, aldiz, bilakaera negatiboa izan dute, produkzioa % 0,1 jaitsi baita aurreko urteko aldi metatu berarekin alderatuta. *Bitarteko ondasunek*, berriz, % 2,9 egin dute behera, eta *Energiak* % 4,1.

Lurralde historikoen arabera, 2025eko lehen lau hilabeteetako metatua balantze positiboarekin itxi da Gipuzkoan ekoizpenaren % 0,2ko igoerarekin. Bizkaian eta Araban, aldiz, produkzioa % 0,9 eta % 3,4 jaitsi da, hurrenez hurren, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % 84,63ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62